



OARGI MENDI ELKARTEA

Santa Maria, 4
20400 TOLOSA
Tfno. 943 67 56 12
info@oargi.org
www.oargi.org

VIII. TXIRRITA MENDI IBILALDIA

ARALARKO GAILURRETAN ZEHAR

13. Euskal Herriko iraupen luzeko ibiltarien zirkuitotarako baliogarria

2014ko MAIATZAK 18

Luzera: 45km

Ordua: 06.00etan

Desnibela: 3000m

Bixente Aterpea (Amezketeta)



Tolosako OARGI Mendi Elkartek lau urtetik behin Aralarko gailurretan zehar mendiko ibilaldi bat antolatzen du, hain zuzen ere Txirrita Mendi Ibilaldia delakoa. Bernardo Bidaola Atxega - Txirrita -, gure elkarteko bazkide izandakoaren oroimenez, mendizaletasuna eta abertzaletasunaren eredutzat hartu dugulako. Aurten, Aralarko gainetatik egiten den zortzigarren ibilaldia ospatzen da, Txirrita Mendi Ibilaldia izenarekin, berriz, zazpigarrena. Mendiko zeharbide honek Euskal Herriko Mendi Federazioak ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu. Urtetik urtera euskal mendizaleen arteak ohizkoa bihurtu da mendi martxa hori. antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiegu lagundu egin gaituzten guztiei.

1.-TXIRRITA IBILALDIA. Mendi ibilaldia Tolosako OARGI Mendi Elkartek antolatzen du. Ibilaldia Aralar mendikatean egingo da 2014ko Maiatzaren 18an. Amezketako Bixente Aterpean (Aierbenea etxean), goizeko seiretan emango zaio hasiera ibilaldiari.

2.- ERANTZUNKIZUNAK. Parte-hartzaileek garbi izan behar dute zeharkaldi hau mendi ibilbide bat dela, eta kirol jarduera horren arriskuak dituela. Oargi Mendi Elkartek ez du bere gain hartzen parte-hartzaileei ibilbidean edo ibilbidearen ondorioz gertatutako istripuen, galdutako objektuen edo izandako min eta lesioen ardura. Parte-hartzaileek uko egiten diote elkartearen kontra erreklamazioak jartzeari edo indemnitazioak eskatzeari. Mendi jarduera hau egiteko federatua egotea beharrezkoa da. Elkartek jarduera hau bertan behera uzteko edo atzeratzeko eskubidea du, eguraldia edo bestelako arrazioiak tarteko.

3.- INFORMAZIOA/IZEN EMATEA. Informazioa (Apirilaren 22tik aurrera). Izen ematea 12E da. Apirilaren 22tik aurrera egin ahal izango da eta ondoren azaltzen diren bideak erabiliz egin daiteke: **Interneteko helbidea: www.zirkuitua.com edo Oargi Mendi Elkarteen lokalean** (Astelehenetatik Ostiralera, 19.00etatik-21.00ra).

IZEN EMATEKO EPEA ASTE BAT LEHENAGO ITXIKO DA (MAIATZAREN 11ean).

4.- ZERBITZUAK. Elkartek lokal bat prestatuko du bezperan bertan lo egin nahi dutenentzat. Zerbitzu hori erabili nahi dutenek, antolakuntzari

jakin arazi beharko diote 665 704 142 telefonora deituaz.

5.- IRTEERA. Zeharkaldi hau goizeko 6.00etan hasiko da. Irteeran txartel pertsonalizatua emango zaio parte-hartzaile bakoitzari, izen-ematearen hurrenkeraren arabera zenbakiarekin. Era mailakatuan emango da irteera, gutxi gora behera 50 parte-hartzaile minutuko.

6.- KONTROLAK. Parte-hartzaileek goian azaldutako ibilbidea egin behar dute, eta derrigor igaro behar dute ezarritako kontroletatik. Kontrol horietan martxa-txartela erakutsi beharko dute zigilua jartzeko. Kontrolak txartelean adierazitako gutxieneko eta gehieneko denbora-tartean egongo dira zabalik. Ibilbidearen iraupena gutxi gora behera 12 ordukoa da.

7.- BALIZAK. Ibilbideak plastikozko zinten bidez markatuta egongo dira. Antolaketako kideek azken parte-hartzailearen atzetik egingo dute ibilbidea, zintak jasoz eta ibilbideari amaiera emanez.

8.- HORNIDURA. Parte-hartzaileei hau egiteko beharrezko diren elikagaia eta edariak ekartzea gomendatzen zaie. Antolaketako kideek ura eta gutxieneko hornidura jarriko dute, Unagako Putzua eta gero gainera lgaratzen salda, kafea, haragi egosia, eta abar.

9.- ERRETIRATZEA. Ibilbidearen zehar erretiratzen diren parte-hartzaileek antolaketako kideei eman behar diete txartela, edo bestela martxa-txartelaren atzealdeko telefono zenbakin jakinarazi.

10.- BUKAERA. Ibilbidearen bukaeran txartela kontrolen zigilu guztiekin jarrita erakusten dutenei diploma eta kamiseta bana emango zaie.

LAGUNTZAILEAK



AMEZKETAKO UDALA



• ARALARKO ADISKIDEAK • ESPINOSAKO FRUTATEGIA •
• GURUTZE GORRIA • BIXENTE ATERPEA • CAFÉS ZABALA •